

IKASTARORA BARRIRO

Udea igaro jaku eta negurantza garoezan egun
illun eta laburrak, egun euritsuak, urreratu jakuz.

Eta sasoi onetan gure gazteak ikasketara urrera-
tzen dira Ikastetxeetan, ikastoletan eta Ikastegietan.

Euskaldun asko be ikasturtearen asiera onetan ur-
duri dagoz, euskerea menperatzeko gurariaz.

EUSKERAZALEAK aspaldiko urteetan egiten
dogun alegiña da, Bilbao'tarrai batez be, euskera ira-
kastea. Aurten be egingo dogu lan ori, baiña tamalez
autortu bear dogu gure ikasleak geroago ta gitxiago
dirala.

Ez da au gure arazoa bakarrik, beste ikastaro ba-
tzuk be arazo bardiñakaz babiltzala entzun dogu.

Zer jazoten da?

Euskerearen zaletasuna galdu egin ete da? Gauza
bildurgarria litzake ori. Zaletasun ori galtzen dan
neurrian galtzen da abertzaleatasuna be eta gure erria
arriskuan ikusten dogu.

Dei bizia eta zolia egiten dautsegu ba, batez be Bil-
bao'tarrai ikastaro onetan izena emon dagien eta gure
izkuntza eskuratzen alegindu daitezcan. Ortik ez dabe
aterako poza baiño.

(4n. ORRIALDETIK)

Nik batu dagikedan
uzta orren ugaria,
zeure suzko labea,
otoi, sutu eidazu.
Ta antxe zeure ezpane-
riorik odola,
neuretan ezarri
betiereko pa-mosua.
*Ordun ez geiago negarrik,
ez, ez zure Arpegian;
eta betiko irribarrean
zure irudia nik ikusiko.*

BETIKO KANTA

1 Lur arrotzean lekutua,
kanta nai dautzut il arte;
betiko kanta jo nai dautzut...
Maitasunezko sutzarrak atera,
erbeste ontako min latzak
illuntzen dabezanak, kanta nai ditut!

2 Ai, Jesus, ene maitea!,
edertasun uts, zelan emon Zu,
neurri barik arima aulari!

Egin daidala, gozotasun gozo!,
ordaiñez Zugaz orobat
egiz ekiñik serafin biziari.

3 Zelan aztu saiatzen da
zure maitasuna, txiki nazala,
Zu neure barruan gordetzeko!
Eder bekit ezkutu aundi ori,
zure kaigutzak maite-azorik
katez zeure atxiki ni egiteko.

4 Ail, sutzen nozun maitasuna,
zauri naizu ariman, jar ni sutan
kiskal bear dodan sutzarrean!
Nik daskat bai, ene jainkoa!
Zugaitik nai dot bizi gura,
zure sutan, opari errean...

5 Ementxe nire oiñaze-miñak,
poz-atsegiñak, maitezko sutan,
arima Jaunagana egaztean...
Zeruak!, aberri eder, goi-goiko:
kanta bakar-bakarraren poema,
kanta ta kanta betierean!

(1896.martxoaren 10)

A. SANTI ONAINDAIA'K
EUSKERATUA